

Memoria subalternoak Mikel Peruarenaren nobelagintzan*

Subaltern Memories within Mikel Peruarena's Narrative

BEÑAT SARASOLA SANTAMARIA

(EHU/UPV)

benat.sarasola@ehu.eus

Recibido: noviembre de 2017. Aceptado: Abril de 2018.

Laburpena: Artikulu honek Mikel Peruarenaren nobelagintza aztertzen du memoria ikasketen ikuspegitik. Zehazki, memoria subalternoak fikzioaren bidez berreskuratzeko Peruarenak egiten dituen ahaleginak aletzen dira. Hala, alde batetik, euskal memoria hegemonikotik aparte dauden bi pasarte historiko gogorarazten dituzte *Ez obeditu inori* eta *Su zelaiak* nobelek; hurrenez huren, Kubako Independentzia Gerra eta Lehen Mundu Gerra. Bietan ere memoria eta identitate subalternoekiko jaidura eta sentsibilitatea sumatzen da. Bestetik, nobelotan, memoria lantzeko ohikoak diren hainbat elementu narratibo aurkitzen ahal dira, zeinak ezinbestekoak diren memoria subalternoen soslaia osatzeko.

Hitz-gakoak : Memoria ikasketak, Subalternitate Ikasketak, Mikel Peruarena, Euskal Literatura

Abstract: This article analyses Mikel Peruarena's novels under memory studies perspective. More precisely, it researches the way Peruarena revives subaltern memories through his fiction. Thus, on one hand, the novels *Ez obeditu inori* and *Su Zelaiak* restore two historical chapters that have been forgotten within Basque hegemonic memory; respectively, Cuban War of Independence and First World War. In both cases, it can be seen a sensibility towards subaltern memories and identities. On the other hand, in these novels appear several narrative elements that are common in memory literature, and they are key to complete the subaltern memory character of them.

Key words: Memory Studies, Subaltern Studies, Mikel Peruarena, Basque Literature

* Argitalpen hau IT 1047-16 ikertaldea burutzen ari den US 17/10 (UPV-EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa proiektuetan sartzen da. / Esta publicación forma parte de los proyectos US 17/10 (UPV-EHU) y FFI2017-84342-P (MINECO) que desarrolla el grupo de investigación IT 1047-16.

SARRERA

Azken hamarkadetan memoriaren booma jazo izan dela aipatu ohi da humanitateetako ikerketa esparruan. Delako boomaren arabera, 1980ko hamarkada aldera, memoriaren loturiko ikerketa eta jarduerak nabarmen ugartu ziren, eta hurrengo hamarkadan memoriarekin loturiko eztanda hori mundu globalizatura zabaldu zen obsesio bihurtzeraino (Huyssen 1995: 5). Euskal Herrira ere iritsi zelarik, bereziki 36ko Gerrari eta Frankismoari loturik garatu da memoriaren auzia (Arroita 2015: 48); eta hortik aurrera, baita «euskal gatazka» deitu izan zaionarekin ere. Literatur lanei dagokienez, 90. hamarkadako zenbait lan mugarrirekin gogoratzea besterik ez dugu horretaz jabetzeko: Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean*, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* edo Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria*. Joera horrek hurrengo urteetan ere jarraituko duela argi esan liteke, Jokin Muñozen lanei erreparatzen badiegu esaterako, edo are azken urteotako Harkaitz Canoren *Twist* edo Kirmen Uribe-ren *Elkarrekin esnatzeko ordua* nobelei. Ikerketei dagokienez, 2000. urtetik hona lanak ugartu besterik ez dira egin halaber, eta horien adibide dira urte gutxiko tartean 36ko gerrari buruz argitaratutako lan monografikoak: *Gerra Zibila eta euskal literatura* (Toledo 2009), *Literaturas ibéricas y memoria histórica* (Olaziregi 2011) eta *La Guerra Civil en la literatura vasca* (Kortazar 2011). Horiekin batera aipa liteke orobat 2015an Izaro Arroita eta Lourdes Otaegik argitaratutako liburua: *Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. Kontaera historiko-politikoak*. Bestetik, euskal gatazkari buruzkoak kontuan hartuta (Egaña eta Zelaieta 2006; Kortazar eta Serrano 2012), berehala jabetuko gara gai eta garai zehatz horien bueltan mugitu direla memoriari buruzko ikerketak Euskal Herrian. Orain arte Euskal memoria, beraz, 36ko Gerratik berriki arte luzatzen den Euskal Herriko historia gatazkatsuan zertu dela esan daiteke, eta enbor nagusi horretatik landa apenas ikertu dela.

Alabaina, beste memoria batzuekin zer gertatzen den galdegin diezaiekegu halaber geure buruei, hots, hegemonikoak ez diren memoriekin edota periodizazio horietatik kanpo geratzen direnekin. Euskal Herriaren memoria eta euskal identitateak askotarikoak izanik, arestian aipatu literatura eta ikerketetatik landa badago non miatu. Mikel Peruarenaren nobelagintza, bada, ildo horretan kokatzen da bete-betean, artikulu honetan memoria subalterno deituko diegun horien baitan hain justu. Euskal memoria arakatzen badu ere, Peruarenak haren beste zirrikitu batzuk esploratzen ditu, 36ko Gerra eta ondorengo gatazkatik aparte. Hala, Peruarenaren nobelagintzak memoria ikasketek orain arte aintzat hartu ez dituzten zenbait euskal memoria subalterno azaleratzen ditu.

1. MEMORIA SUBALTERNOAK

Memoria subalternoa kontzeptua ez da orain arte sobera garatu memoria ikasketen baitan. Aitzitik, José Colmeirok artikulu batean iradoki zuenez (2011: 20-21), memoria eta identitatea oso loturik dauden gaiak direnez, memoriak identitate subalternoak eta minoritarioak irudikatzen aukera

ahalbidetzen du. Memoriari (oro har) dagokionez, ezagun da teorizazio dezente proposatu direla, baina edonola ere, denek dute gutxi-asko Maurice Halbwachsek hedatu zuen memoria kolektiboa kontzeptuan jatorria. Haren arabera, memoria oro kolektiboa da ezinbestez, ez dago huts-hutsean indibidualki oroitzeko modurik. «Pero nuestros recuerdos siguen siendo colectivos, y son los demás quienes nos los recuerdan, a pesar de que se trata de hechos en los que hemos estado implicados nosotros solos, y objetos que hemos visto nosotros solos.» (Halbwachs 2004: 26). Ikuspuntu antisolipsista nabariaz, memoria indibiduala erabiltzen badu ere, beti kolektiboaren mendeko ezartzen du finean: «Cabe decir que cada memoria individual es un punto de vista sobre la memoria colectiva» (Halbwachs 2004: 50). Horrek ez du esan nahi, haatik, memoria kolektiboa kontu objektibo-abstraktua denik; alderantziz, konkretu eta bizitakoarekin loturikoa da, eta horrexek ezberdintzen du, aldi berean, historiarengandik (Carretero 2007: 173). Memoriaz ari garenean, honenbestez, «memoria ikasketak» izeneko esparruan ari garelarik bederen, zentzu kolektibo eta bizi horretan aritzen gara, eta horregatik gizatalde edo nazio bateko historia kolektiboarekin loturik etortzen da gehienetan, 36ko Gerraren kasuan bezalaxe adibidez. Ez gara ari, beraz, gizakiaren memoriaren aspektu psikologiko zehatz eta partikularrez, baizik eta talde egiten gaituzten oroitzapen komun horiez.

Dena den, memoria ikasketen garapenean, memoriaren barneko bereizketa geroz eta xeheagoak egin izan dira. Horien artean nabarmenetako bat da memoria kulturalarena (Erll, Nünning 2010), zeina memoria komunikatiboa delakotik (Assmann J. 2010) bereizi izan den. Horren arabera, Halbwachsek proposatutako memoria kolektibo kontzeptuak tradizioa eta transmisio kulturalaren dimentsioa baztertu zuen, eta haren alderdi komunikatiboan jartzeko arreta. Horregatik, Astrid eta Jan Assmannek memoria kolektiboaren barnean «memoria komunikatiboa» eta «memoria kulturala» bereizi zituzten. Gure azterketarako interesgarriena, baina, Astrid Assmannen memoria kulturalaren analisisa dugu, hain justu memoria ezberdinen arteko gatazka eta botere erlazioez diharduelako. Memoria kanonikoak eta artxibistikoak daudela azpimarratu zuen, non memoria kanonikoen esparru kultural bateko memoria gogoratu nagusia irudikatuko luketen, hots, memoriaren kanonean sartutakoak, eta gainontzeko memoria gogoratuak artxibaturik geratuko lirakeen «latentzia egoera batean» (Assmann, A. 2010: 103). Sistema dinamikoa izaki, memoriaren auziaren baitan, kanon literarioarekin gertatzen den legez, kanonaren eraldaketa gerta liteke, eta horregatik, posible da artxibaturik geratutako memoria bat denborarekin memoria kanoniko bihurtzea. Kasu honetan, artxiboaren dinamika da interesatzen zaiguna; ikusiko dugunez, memoria subalternoak artxibaturik geratutako memoria ez-kanonikoen parte izango lirake.

Izan ere, subalternitatearen auzia ere memoriaren boom delakoaren paraleloan garatu zen, nahiz eta elkarrekiko kontaktu agerikorik gabe egin zuten aurrera bi ildo teorikoek. Bereiziki unibertsitate-ibilbidea Britainia Handian garatu zuten ikerlari indiar zenbaitek osatutako ikasketei egiten diete erreferentzia «ikasketa subalternoek», zeinak *Subaltern Studies Collective* elkartearen bidez bultzatu zituzten 80. hamarkadatik aurrera. Teoria postkolonialaren abarloan kokatuak, Antonio Gramsciren hegemoniari buruzko hausnarketak dituzte oinarri, hain justu hegemonikoak ez diren identitateengan arreta ipintzeko. Ildo

horretan, nabarmenki eragin handikoa izan da Gayatri Chakravorty Spivak pensalariaren ekarpena *Can the Subaltern Speak?* testu mugarririk hasita.

Subalternitatearen definizio bat bilatzea aski kontu problematikoa dela azpimarratu beharra dago lehenik; izan ere, kontzeptua bera, bereziki Spivakek ematen dion adieran, izaera esentzial oro baztertzeko pentsatua baitago (Asensi 2009). Ez alferrik, Jacques Derridaren dekonstrukzioaren arrastoa ikus liteke Spivaken argudio horretan, bere irakasle izandako Paul de Manengandik jasotako arrastoa hain zuzen ere. Edonola ere, artikulu honetarako ikasketa subalternotan maiz erabiltzen den kontzeptualizazioa erabiliko dugu nagusiki, Gramsciren *Quaderni del carcere*-ko hirugarren koadernoko hamalagarren apuntean zirriboratu zena lehendabizikoz. Han, klase subalternoa klase dominanteen kontraktatzat jotzen dira, eta haien ekinbidearen ondorio latzak pairatzen dituen klasea gence beraz (Gramsci 1981: 27). Ildo horretakoa da halaber ikasketa subalternoen sortzailetako baten ezaugarritzea. Ranajit Guhak elite kontzeptuaren kontrajari gisa ulertzen ditu «klase subalternoa», eta «jendea» (*people*) hitzaren sinonimo gisa. Negatiboki definiturik, elitearen parte ez liratekeen klaseak lirateke, hala, subalternoa: «*the demographic difference between the total Indian population and all those whom that we have described as the “elite”*» (Guha 1988: 44). Honenbestez, alde batetik, esan dezakegu subalternoa elite edo klase dominantek menderatua dena dela, hau da, botere guneetatik aparte azpiraturik bizi dena. Bestetik, definizio zabal hori, zentzu erlatibo eta erlazioan ulertu behar gence Spivaki jarraiki; hau da, zentzu hertsian behintzat, ez legoke identitate subalternorik, baizik eta botere harreman subalternoa, zeinak teorikoki aldagarriak eta askotarikoak izan daitezkeen.

Subalternitatearen auzia memoria ikasketetara eramanez, ildo eraginkorra ireki liteke, bereziki memoriaren boomaren osteko hamarkada hauetan zenbait zirrikitu eta xehetasun landu litezkeela aprobetxaturik. Hala, memoria subalternoa memoriaren boomaren lehen alde horretan itzalpean geratu direnak lirateke, hau da, memoria nagusietatik aparte geratu direnak, eta ondorioz, Astrid Assmanek artxioboaren parte jotzen dituenak. Spivaken argudioaren arabera, subalternoa, hitz egiten badute ere, ez dira entzunak izateko gauza. Komunikazio arazo bat dago subalternitatearen oinarrian beraz: klase hegemonikoak ez ditu klase subalternoa entzuten. Horregatik, memoria subalternoa artxioboaren parte lirateke; hitz egiten dute edo idatzirik daude, baina artxibaturik, egoera latente batean, bizitasunik gabe, norbaitek berreskuratu eta birsortuko dituen esperoan. Euskal Herriko memoria ikasketei dagokionez, 36ko Gerra eta ondorengo gatazka izan bada memoria ikertu eta landu nagusia hala literaturan, nola kritikan (eta horren barruan, bereziki, memoria abertzaleak), memoria horiengandik aparte geratzen direnak subalternitatearen ikuspuntutik aztertzeko aukera irekitzen da. Euskal Herriaren eta euskalduntasunaren identitatearen zedarriztean memoria nagusi horiek funtsezkoak izan direla agerikoa da, baina badira beste memoria batzuk, subalternoa alegia, euskal identitate aberatsago eta konplexuago batzuk osatzen lagun lezaketenak. Jan Assmanek esaten duen legez, memoria «nor izatearen (identitatea) kontzientzia hartzen uzten digun ahalmena baita, hala maila pertsonalean nola kolektiboan». Horregatik, aberasgarria izan liteke Euskal Herriaren memoria ezkutueta (artxioboan) arakatzea. Jarraian ikusiko denez, Peruarenak halako memoria batzuk arakatzen ditu bere

nobeletan; zehazki, Kubako Gerra (1868-1898) eta Lehen Mundu Gerrarekin (1914-1918) loturik dauden memoriak.

2. MIKEL PERUARENA ETA MEMORIA SUBALTERNOAK

Mikel Peruarena (Ereñotzu, 1978) bere belaunalditik kritikak gehien preziazten duen euskal idazleetako bat dugu. Horren adibide da bere azken lanak, *Su zelaiak* (2014) nobelak, jasotako Euskadi Saria (idazleak uko egin ziona) eta iruzkin kritiko positiboak, edo are bere lehen nobelak, *Ez obeditu inori-k* (2009), jasotako laudorioak¹. Poesian ere bere bidea egin duen arren, *Eguraldiaz hizketan*, *Edan arte ase* Peruarenaren nobelagile alderdia da estimatuena, orain arte idatzitako bi nobela horiengatik. Kritikaren onespina jasotzeaz gain, zenbait irakurlerena ere erdietsi du, 111 Akademia Saria eskuratu baitzuen halaber *Su zelaiakekin* 2015ean. Nolanahi den, dela bere obra nagusiak publikatu direnetik denbora gutxi pasa delako, dela bere molde literarioa literatura konbentzional eta irakurterrazetik aparte dagoelako, Peruarenaren literaturari buruzko ikerketarik ez da gauzatu oraindik.

Dudarik gabe, Peruarenaren obraren konplexutasun eta joritasunak bide ematen du askotariko ikerketak lantzeko, baina kasu honetan memoria ikaske-ten ikuspuntutik irakurriko dugu haren nobelagintza, zehazki memoria subalternoen ikuspuntutik. Izan ere, orain arte argitaratu dituen bi nobeletan azaltzen zaigu subalternoekiko jaidura, edo beste gisa batera esanda, bi nobeletan berreskuratzen zaizkigu Euskal Herriko memoria ahaztu edo bazterreko bana.

2.1. *Ez obeditu inori* eta Kubako Gerra

XIX. mende bukaeran Donostian kokatutako istorioa kontatzen du *Ez obeditu inori* nobelak; zehazki, 1897ko martxotik 1899ko azarorako denbora tartea. Hala, Kubako Independentzia Gerraren garaia genuke, eta bi gatazka horien oihartzunak etengabeak dira nobela guztian zehar². Bereziki hirukote baten gorabeherak narratzen dira kontakizunean. Alde batetik Sotero Mujika protagonista eta narratzailea dugu, baserriko langilea eta bertso-paper izkiriartzailea, Kubako Gerran ibilitakoa. Émile bigarrenik, *frantsesa* eta *eltzagorra* ezizenez deitzen diona Soterok; okzitaniarra bera (Tolosakoa), inprimatzailea da Baroja moldiztegiari, eta poesia idaztea du afizio. Parisko Komunako kontuak izaten ditu noiznahi hizpide. Alberto azkenik, *estudiantea*, hiruretan gazteena. Madrilerako joatekoa da medikuntza ikastera eta itzultzaile lanak egiten dizkio tarteka Soterori. Ekintza politiko armatu baten prestakuntzarako hasten dira biltzen hirurak Donostiako Parte Zaharreko Ramiroren tabernako zoko batean, «zaku-

¹ Ikus, esaterako, kritikaren iruzkinak: Beñat Sarasola (2009; 2010), Ion Olano (2009), Gari Berasaluze (2009), Mikel Asurmendi (2009).

² Kubako Independentzia Gerraz ari garenean, oro har ariko gara. Horren barnean sartuko ditugu, 1868tik 1898rako tartean jazotako gatazka edo guda askotarikoak: Hamar urteen Gerra, Gerra Txikia, Kubaren Independentzia Gerra eta Espainia-Estatu Batuak Gerra.

rraren ipurtzuloa» deitzen dioten horretan, eta hala osatzen dute Oinazearen Federazio Txakarra elkarte. Porrot egingo duen ekintza baten kronika dugu finean istorioa, zeinean ekintzak berak baino, pertsonaia bakoitzaren soslaiak eta garaiko bizimoduaren eta gatazken gorabeherak duten garrantzia handiagoa.

Soteroren ezaugarri fisiko nabarmenetakoa dugu maingua izatea. Kubako Gerran galdu zuen eskuineko besoaren erdia, eta besondoarekin geratu zen harrezkero. Funtzio sinboliko nabarmena du nobela guztian zehar, eta Sotero pertsonaiaren izaera bazterrekoa azpimarratzeko balio du. Maingutasunak Cervantesen oihartzunak dakartza, eta harekin Kixotearenak, zeinak Soteroren zenbait ezaugarri partekatzen dituen³. Beste zenbait ezaugarri ere pertsonaiaren subalternitatean sakontzen dute. Fermin Eizmendi izeneko batentzat egiten du lan Loiolan mandazain, eta liskarrean dabil beti harekin. Maria Kristina astoa hiltzen zaionean lana utzi eta maizter dagoen etxean hasiko da morroi lehenik, eta haziak saltzen dituen denda batean gero. Ikuspuntu ekonomikotik, beraz, klase baxukoa dugu. Hala ere, Soteroren subalternitatea agerikoen egiten duen ezaugarria analfabeto izatea dugu. Bertsopaperak Xefe laguntzaileak idazten dizkio, eta hala, ahozko tradizio eta idatzizkoaren arteko kontraste nabaria azaltzen da nobela guztian, Sotero eta Frantsesaren arteko kontrasteak gorpuztua. Sotero bertsolaria da, ahozko tradizioan txertatua, eta Frantsesa, berriz, poeta, idatzizko tradiziokoa. Estudianteak irakurtzen ikas dezan laguntzen dio Soterori, baina nekez da testutxoak irakurtzeko gauza istorioaren bukaerarako. Analfabeto izate horrek Spivakera garamatza berriro ere. Spivakek subalternitatea komunikazio arazo gisa irudikatu zuen, eta kasu honetan ikusten dugu Soteroren subalternitate izaera komunikazio arazo horrek ere definitzen duela. Inoren beharra du testuak irakurri edo idazteko, eta egia bada ere zailtasun horiek nola-hala konpontzen dituela nobelan zehar (Xefe eta Estudianteren laguntzaz), elitearen parte diren pertsonaiekiko harremanean azaleratzen da komunikazio arazo hori modu agerikoenean. Bereziki Arrietarekiko harremanean. Sarjentu egindakoa, Ramiroren tabernan ikusi ohi dute elkar eta etengabe mespretxatzen du Arrietak Sotero, ez du aukerarik galtzen hura azpiratzeko. Hala ere, bereziki da interesgarria beren arteko erlazioa aztertzea Soteroren analfabetismoaren ikuspegitik. Estudianteari zuzendutako barne-bakarrizketa batean, halaxe dio Soterok: «Esaiok Arrietari. Berak hainbeste ikasi dudala idazten eta leitzen» (158). Hizkuntza ezberdintasunak baldintzatzen du bien arteko harremana, eta badirudi hizkuntza idatzia ikasteak berdindu lezakeela bien artekoa. Soterok Arrietarekiko komunikazio hutsune hori bete nahi duela dirudi, harekiko subalternitateaz erauzteko. Hain da horrela ezen istorioaren amaiera, zeina bien arteko borrokaren ondoren iristen den, eskutitz baten bueltan jazotzen den. Sotero nekez ari da Estudianteak bidalitako eskutitza irakurtzen Ramiroren tabernan, eta bukatu duenlarik, berau erretzen ahalegintzen da. Asaldatuta, hori eragozten saiatzen da Arrieta, eta horrek pizten du bien arteko borroka. Esanguratsuena, haatik, liskarraren erdian Arrietak botatzen diona da, gutunak omen duen garrantzia-

³ Biak ditugu gizarteak egotzitako pertsonaiak, justizia aintzat hartzen dutenak eta ororen kontra beren txikitasunetik (eta puntu aski irrazional batez) borroka egiteko prest direnak. Soterori ere antzematen zaio errota ororen kontra borrokatzeko bulkada ez-errealista hori.

gatik harrituta: «Baina, hik ba al dakik ba leitzen?» (170). Momentu horretan ateratzen du labana Soterok gerruntzetik eta Arrieta labankatzen. Une hori, istorioaren ebazpenean funtsezkoena dena, garrantzitsua da halaber Soteroren subalternitatearen ikuspuntutik. Etengabe Sotero azpiratzen duen Arrietak kontzientzia hartzen duenean hark irakurtzen ikasi duela, orduan oldartzen zaio Sotero. Alfabetatzeak ahaldundu balu bezala, Arrietaren jipioa onartu beharrean, ordura arte ez bezala defendatu egiten da guztien harridurarako eta Arrieta hiltzorian bidaltzen du erietxera.

Pertsonaiaren identitate subalternoaz landa, baina, Peruarenak Euskal Herriaren memoriatik aparte dagoen memoria bat berreskuratzen digu orobat. Izan ere, istorioa euskal abertzaletasunaren sorreraren paraleloan kokatzen da. EAJ 1895eko uztailaren 31n jaio zen eta orduantxe ari zen Sabino Arana ideologia abertzalea hedatzen, hain justu istorioa jazotzen den denbora tarte berean. Alta, abertzaletasunak ez du pisurik ez istorioan ez pertsonaiengan, salbu eta zeharka. Aipu batean Arana ageri da, baina aski modu arrotzean, «Bizkaiaren independentzia eskatzen ari zen gazte bilbotar bat» (70) gisa irudikatzen baita. Bestetik, abertzaletasunarekiko erlazio bakarra karlismoaren bidezkoa izan liteke. Soteroren aita karlista dugu, Santa Kruz apaizarekin aritu zen Bigarren Karlistaldian, eta borrokan hil zen Tolosan (109). Soterok berak ere halako kutsu abertzalea izan dezake, baina ñabardurekin. Egia da Sotero ez dela Espainiako Erreinuko parte sentitzen eta, liberalen kontra hitz egiteaz aparte, beti hirugarren pertsonan hitz egiten duela Espainiaz, baina distantzia hori gehiago markatzen du haren bakezaletasun eta izaera libertarioak ezberdintasun nazionalak baino. Izan ere, nobelako pertsonaiek tradizio sozialistatik⁴ edaten dute, eta ez dago kontzientzia nazionalaren zantzurik ia. Sotero dugu hiruretan (goi) kultura ezagutza eskasena duena, eta beste biek «leziatzen» (68) dute sozialismoaren garaiko autore eta testuekin.

Kriseiluaren argitan eta pattarraren beroan jende berria ezagutu nuen, Ramirorenetik mugitu gabe; Frantsesak eta Estudianteak aurkeztu zizkidaten izen arrotzak, geografia ezezagunak. Hitz berriak ere ikasi nituen zakurraren eskolan, asteazken gauetan baino kabitzen ez ziren hitz berriak: askatasuna, materialismo historikoa, alienazioa, jabetza pribatua, klase sozialak, boterea, justizia, zapalkuntza, plusbalioa, erabileraren balioa eta trukearen balioa, soldataren esklabotza; eta elkartasuna; eta antolakuntza; eta iraultza (Peruarena, 2009, 70-71).

Halaxe hasten da Sotero kontzientzia sozialista hartzen, edo aurretik modu aski intuitiboan pentsatu eta sentitzen zuena (zapalduetik elkartasuna, justiziaren zentzua) hitz potoloz hornitzen. Hain justu, kapitalismoa zer zen hitz handirik gabe ikasi zuela kontatzen dio Frantsesari pasarte batean (98-99). Frantsesa pertsonaia garrantzitsua da leziatze horretan, Parisko

⁴ Sozialista zentzu zabalenean ulertu behar da hemen, tradizio anarkista zein marxista barnebiltzen dituela (Lehenengo Internazionalaren zentzuan). Izan ere, pertsonaiek anarkismotik zein marxismotik datozen kontzeptuak baliatzen dituzte, nahiz eta lehenengotik gertuago daudela esan daitekeen, besteak beste liburuaren beraren izenburu anarkistari erreparatzen badiogu.

Komunan parte hartu zuela esaten ibiltzen baita hor zehar, eta hango kontuak kontatzen. Horieta batean ekarriko dio Frantsesak Kropotkinen *La conquista del pan*, edo hitz egingo dio beste batean Adolphe Tiersen kontra «Donostiako liberalkumeen Bibliaz» (183). Ideia horiek bultzatuko dituzte ekintzara (batez ere Sotero), eta elitearen kontrako atentatu bat prestatzera. Ekintzarako azkeneko bultzada Michele Angiolilloren atentatuak emango die, ekintzaile anarkistak Canovas del Castillo Arrasaten hil zuenekoak. Atentatuak berak, eta Angiolilloren atxiloketa eta exekuzioak. Frantsesaren hitzetan, «Luzatu egin behar dugu Angiolilloren itzala» (86). Tradizio sozialista libertario horren memoria bakana da gure artean, bereziki mundu euskaldunaz ari garelarik. Euskal literaturan bertan, apenas dago memoria horren pisu nabarmenik, ez bada Koldo Izagirrearen literaturgintzan (1984; 1998; 1999), eta beste aleren batean (Inazio Mujika Iraolaren *denbora* esaterako). Horrekin batera, Kubako Gerra ere euskal memoria nagusietatik erabat aparte dago. Izan ere, Euskal Herriko memoria abertzale nagusiaren sekuentziazioan, abertzaletasuna sortu aurreko jazoera historiko garrantzitsuenak Foruen galera eta Karlistaldiak ditugulako. Alabaina, nobela honetan Kubako Gerra dugu ekintza ulertzeko testuinguru politikoa. Soteroren biografia pertsonaletik harago, kontzientziazte politikoa sozialistan garrantzia hartzen du, gerra inperioen eta bertako eliteen arteko gudu gisa azaltzen baita, zeinean herri xehea bidaltzen baitute kanoi-bazka. Bakezaletasun hori, inperioen arteko gerraren oposizio gisa azaltzen dena, inoiz baino agerikoagoa suertatuko da, ezagun denez, I. Mundu Gerran, non Errusiako Iraultza ondorik, gobernu boltxebikeak armistizioa sinatuko duen arrazoi horiexengatik. Leninek 1917ko azaroaren 8an sinatutako «Bakearen Dekretuak» argiki erakusten du posizionamendu bakezale hori, Soterok berak sinatuko lukeena ziur aski: «*The workers of the countries mentioned [Britainia Handia, Frantzia eta Alemania] will understand the duty that now faces them of saving mankind from the horrors of war and its consequences*». I. Mundu Gerrako ildoak, baina, *Su zelaiak*en garatuko du Peruarenak. *Ez obeditu inorira* itzuliz, ikus nola ezaugarritzen dituen gerraren aldeko diru biltzeak Soterok, haren aldeko gazte sutsuen aurrean. «Diru biltzeak, bezperan Alamedan trapu zikin lokaztuak astintzen ibilitako gazteek hanka edo begia galtzeko, soroak biltzeko eta baratzeak jorrazteko besorik gabe gelditzeko, gurasoak bilobarik gabe uzteko, hara zertarako» (Peruarena: 2009, 61). Hain justu, giro gerrazale horren kontra, eta kontzientzia sozialistak kuraiaturik, Estudianteak eta Soterok paskinak botako dituzte gerraren kontra.

Plaza Berrian bota genituen paskinak —*Desertatu soldaduok!*—, Gobernu Zibilaren aurrean —*Gerra hau ez da zurea!*—, Santa Mariako eta San Bizenteko eliz atarietan —*Esnatu langileok!*—, Bretxako plazan —*Doazela Kubara aberaskumeak!*— eta Kasino Handiaren terrazan —*Ez eman dirurik gerrari!*— (65)

Garbi dago haien bakezaletasuna, beraz, tradizio eta memoria sozialistari atxikia dagoela, eta irakurketa horren arabera, gerra eliteek egiten dutela langile klasea baliatuz. Horregatik sumintzen da Sotero, entzuten dizkienean herri xehearen parte diren manifestari gazteei edo Ramiro tabernariari gerraren aldeko aldarriak.

Kuban bizitakoak gogoratzen dituenen oro da desgrazia: eritasunak, segadak, baztanga, hurko zendua, baina tartean bada kontakizun guztian zehar errepikatzen den kantu baten leloa, Soterok Hohner armonikaz jo ohi duena:

Maria Cristina me quiere gobernar,
y yo le sigo, le sigo la corriente,
porque no quiero que diga la gente
que Maria Cristina me quiere gobernar

Kubako insurrektoei ikasi ziela kontatzen du, eta ahal duen guztietan armonikaz jotzen, nahiz eta teoriarik etsaiek kantatua izan. Kontua da Soterok ez dituela independentziazaleak etsaitzat, ez baditu edozein motako boteredunak. Hala, besoa insurrekto baten tiro galdu batek eraman bazion ere, bere ondoan zuen Fernando Arrospide sarjentuari egozten dio errua, besoa sarjentuaren babes izan zelako. Kubako bere adiskiderik minena, Pedro, insurrektoei informeak pasatzeagatik dute zigorturik, eta hil bezperan Hohner armonika oparituko diona da. Hala, Sotero Kubako insurrekto subalternoengandik gertuago dago bere agintariengandik baino, eta Hohner armonika subalternoen elkartasun sinbolo bihurtzen da nobelan, hala instrumentuaren jabe originalagatik nola jotzen duen kantuak independentziazaleak (manbiseak) gogorarazten dituelako.

Kubako gerraz aparte, istorioa sozialismoaren tradizio zabalean ere kokatzen da lehen esana den bezala, eta sozialismoaren memoria esplizituki azalartzen du. Neurri batean, hirukoaren ekintza frakasatua ere sozialismoaren memoriaren metafora dukegu. Hirurek osatzen duten Oinazearen Federazio Txakarrean liskarrak gailentzen dira behin eta berriro ekintzaren prestakuntzan, sozialismoaren baitako zatiketa ugarien oihartzunak dakartzatenak.

Behingoagatik zerbait egingo zuen Oinazearen Federazio Txakarrak, artean egoitzarik, armarik eta izen ofizialik gabe biltzen jarraitzen zuen arren, Lehenengo Internazionalarena baino zatiketa larriago baten aurrean egon arren, zerbait egingo genuen, poemak itzultzeaz eta zahagia bete-tzeaz aparte. (112)

Zatiketaren auzia, bereziki Lehenengo Internazionalari loturik, beste behin ere ageri da nobelan (122), baina aurreko aipuan sozialismoaren memoriaren beste gatazka bat ere ageri da, alegia, teoria eta ekintzaren arteko talkarena. Soterok intelektualegitzat ditu hala Frantsesa nola Estudiantea, eta horregatik pozten da, «beingoagatik zerbait egingo» dutelako, zerbait praktikoa, ekintzazkoa alegia. Sotero, ordea, ez da fio hitz handiez haraindi bere bi kideak «zerbait egiteko» gai izango ote diren. Uneren batean ernegatu ere egiten da Frantsesak liburuak kontuak besterik ez dituelako ekartzen.

Iruditu zitzaidan liburu zaharren batekin heldu zela, eta hasia nengoen nardatzen hainbeste paperekin. Papera jaten zuela ematen zuen. Papera handik hona eta hemendik hara garraiatu besterik ez zuela egiten ematen zuen. Papera eta paper gehiago. Paperak ez zuela jateko balio, esango nion gustura. (116)

Konpromisoa eskatzen duten ekintzak egin behar dituztenean, ezkutatu edo desagertu egiten zaizkio Estudiantea eta Frantsesa, eta azkenean bere kabuz konpondu behar izaten du kontua. Horren adibide argiena da dinamita eskuratzeko lan «zikinarena» (117), zeina Soterori egokitzen zaion beste bien aitzakiak medio. Ekintza erabakitzerakoan, Frantsesak argi ikusten du nola burutu, baina ekintzara inplikatzeko borondaterik ez dio ikusten Soterok: «luzamendutan ibiltzen zen» (136). Frantsesak eliteko maila gorena du jopuntuan (Alfonso XIII erregea eta Maria Kristina erregina), eta Sotero beheragokoren batekin (Polavieja, Romero Robledo, Martinez Campos) konformatzen da, besteak beste Kubako gerran inplikazio zuzena zutenekin. Akordiorik ere ez, beraz, helburua nor izango zen erabakitzerakoan.

Memoria sozialistari egiten diote erreferentzia halaber liburuan zehar ageri zaizkigun bi kantu iraultzaile tradizionalak. Alde batetik, *Drapeau Rouge* ageri da, 1870ean Justin Bailly idatzia Parisko Komunaren karietara; bestetik, *La Dynamite* kantu anarkista, 1893an Raphaël Martenotek idatzia eta ekintza armaturako dei agerikoa dena. Jakina, kantu tradizionalak memoria osatzeko elementu mugarririk izan ohi dira, mnemoteknia-gai ohikoenetakoak. Kantu tradizionalen memoriak identitate kolektibo jakin bat osatzen laguntzen dute, eta halaxe gertatzen da nobela honetan bi abesti horiekin. Renate Lachmannek (2010) aztertu du testuartekotasunaren garrantzia literaturaren bidez memoria osatzeko, eta kasu honetan, nobelan aztertzen diren tradizio sozialistako erreferentziak kontuan hartu beharko genituzke: liburu aipuak, autoreak, jazoera historikoak, eztabaidak, baita kantuak ere.

Horrek guztiak, bada, iraultzaileen memoriari egiten dio erreferentzia, eta haren baitan txertatzen du *Ez obeditu inori*. Kubako gerra, memoria sozialista, bakezaletasuna; denek ere Euskal Herriko memoria subalterno bat ematen dute aditzera, euskal memoria hegemoniko abertzaletik aparte kokatzen dena.

Alabaina, ikuspuntu formaletik ere bada zer esanik. Birgit Neumannek hainbat estetika-teknika bereizten ditu «memoriaren fikzioetan» berak «memoriaren mimesia» deitzen diona lortzeko, eta horietako zenbait ere ageri zaizkigu nobela honetan. Narratzaileari dagokionez, ohikoa da «*a reminiscing narrator or figure who looks back in his or her past, trying to impose meaning on the surfacing memories from a present point of view*» (Neumann 2010: 335), eta nobela honetan horixe da aurkitzen duguna hain zuzen. Sotero dugu narratzaile kartzelatik iragandakoak gogoratzen, eta aldaketa laugarren kapituluak ezartzen du. Lehen hiru kapituluak iraganean daude idatziak, eta kartzela aurrekoak kontatzen dituzte, laugarrenean agertzen da orainaldia, Soterok kartzelatik narratzen duela. Lehen hiru kapitulu horiek, ordea, ez daude kronologikoki kontatuak, baizik eta etengabeko denbora jauziekin. Analepsi eta prolepsia, hala, errepikariak dira, halako kontakizunetan ere ohikoa den legez (Neumann 2010: 335), nahiz eta puntu horretan berezitasun bat ere baduen nobelak. Memoriafikzio estandarretan, orainaldian hasten da kontakizuna, eta oroitzapenek analepsi handi bat eragiten dute hortik aurrera iraganekoak kontatzeko. Esan bezala, kasu honetan alderantziz da, iraganean hasi, eta amaiera arte ez daki irakurleak nondik ari den kontatzen Sotero. Laugarren kapituluak jakingo du hori, prolepsia handi baten bidez kartzelara eramaten dutenean. Iragan zatikatu

hori ere fikzio mota horien ezaugarrietako bat da, batez ere literatura garaikidean: «*Especially in contemporary fictions of memory, this chronological order is dissolved at the expense of the subjective experience of time*» (Neumann 2010: 336). Horixe da topatzen duguna hain justu nobela honetan, ez soilik zatikatze horregatik, baizik eta errepikapenak ere ugariak direlako. Esaldiak eta kontakizun zatiak errepikatzen dira tarteka, zenbaitetan literalki, eta horrek ere, Claude Simoni jarraiki (eta Ramon Saizarbitoriak sarritan errepikatu bezala) memoria plater hautsi bat dela gogorarazten digu. Kasu konkretu honetan, errepikapen horiek narratzailearen idazkuntzarako arazoekin loturik daudela uler liteke; horren arabera, protagonistaren antze faltak eramango luke errepikapen horietara, zeinak askoz ere ohikoagoak diren tradizio oralean, hots, Soteroren tradizioan. Errepikapen horiek Thomas Bernhard-en idazkera gogorarazten dute halaber, zeina zenbait kritikok «musika-mekanismo» (Dowden 1991: 1) gisa ulertzen duten eta Bernharden prosaren musikalitatearekin lotzen. Hala izaki, bi kasuetan tradizio oral-musikalarekin ulertuko lirateke errepikapen berezi horiek. Era berean, memoria-fikzioetan ohikoak dira denboraren kontzientziaren inguruko hausnarketak, meta-memoriaren mailakoak (Neumann 2010: 337). Narratzailearen izaera herrikoia kontuan izanik, ez litzateke oso sinesgarria izango halakoez josirik egongo balitz, eta ugariak ez badira ere, badira gauzen ahitzearen inguruko hausnarketak liburuaren bukaera aldera. Frantsesaren zenbait hausnarketek bultzatzen dute Sotero horretara. *Tempus fugit* entzungo diote behin baino gehiagotan Frantsesari, eta baita okzitanierazko esan bat: «*I a un temps que trampa, un autre que destrampa*» (Peruarena 2009: 174). Sotero hasieran hori ere beste intelektualkeria bat balitz bezala ulertzen badu ere, kartzelako esperientziatik, orainaldian, ezberdin ikusten du kontua.

Olatuek ipar aldeko hormaren kontra jotzen dutenean, ematen du kresalak jango duela, eta arrazoi zuela Frantsesak, edozer gauzaren iraupena kontra egiten zaion indarraren arabera dela, batzuetan betirako izango den itxura eman arren. Ziegako barroteak dauzkat aurrean. Herdoiltzen doaz, pixkanaka. Bezperan baino herdoilduago egoten dira hurrengo egunean. Egia da bihar herdoilduago egongo direla gaur baino. Baina hor jarraitzen dute, beti, hurrengo goizean. Higatzen dira, ez dira desegiten. Arrazoi izango zuen, akaso, Frantsesak. Baina nik ere kontuak egin ditut, eta inperio bat edo hizkuntza bat baino gutxiago biziko naiz. Zenbat urte behar dira inperio bat edo hizkuntza bat desagertzeko? Kartzela bat desegiteko, zenbat indar egin behar da? Zenbat indar egin dezake pertsona bakarrak? (179-180)

Elementu horiek guztiak narrazioaren etena eragiten dute, istorio bakarraren disoluzioa (Neumann 2010: 338); kontakizunaren alderdi subjektiboa nabarmenki azaleratzen delarik, narrazioa fidagaitza (*unreliable*) bihurtzen da. Lehen aztertutako testuartekotasunak ere horretan sakonduko luke, ahots eta maila narratibo ezberdinak ekartzen dituelako.

Bestetik, errepikapenek eta beste zenbait baliabide literariok idazkera modernistara gerturatzen dute nobela. David Lodgeren modernismoari buruzko ikerketa klasikoaren arabera, bost dira, oro har, idazketa modernistari atxikiak doazen ezaugarriak: esperimentazioa eta berrikuntza, giza-gogoaren arakatzea

(kontzientzia/inkontzientea), denbora narratiboaren haustura, narratzaile orojakile-fidagarriaren baztertua eta bestelako (tradizionalekiko) baliabide estetikoaren erabilera (Lodge 1976: 481). Puntu batzuk apur bat lausoak izanagatik, esan liteke *Ez obeditu inorin* ezaugarri horietako gehienak betetzen direla, intentsitate ezberdinean bada ere.

Esperimentazio eta berrikuntzari dagokionez, zaila da gaur egundik, literatura posmodernoaren igarotzearen ondoren, lan baten inguruan termino horietan zehazki aritzea, baina esan liteke euskal literatura gehiengoarekiko saiakera berritzaileagoa dela nobela, hala azaltzen diren aipaturiko literatura mekanismoengatik, nola idazkerarengatik eta kritikak ere estilo bereziko nobelatzen jo du (Asurmendi 2009; Berasaluze 2009). Giza-gogoaren arakatzeari dagokionez, ez da bereziki nobela nabarmena zentzu horretan (ziur aski narratzailearen izaeragatik), nahiz eta bukaera aldera badagoen kontzientzia jariozko barne baka-rrizketa azpimarragarri bat (Peruarena 2009: 158-160), Sotero narratzailea Estudianteari zuzentzen zaionean. Denbora hausturei buruz esana da jada aski, eta ziur aski nobelaren ezaugarri modernista nabarmenena da. Narratzaile orojakile-fidagarriari uko egiten diola ere ikusi dugu dagoeneko, Soterorengan fokalizaturiko kontakizuna baitugu, sobera fidagarria (*unreliable*) ez dena. Bestelako baliabide estetikoaren erabilerari dagokionez, hori ere aski puntu lausoa da, baina idazkera errepikakorra eta kontzientzia jarioaren irudikatzea baliabide estetiko modernisten artean koka litezke.

Beraz, nobela modernista paradigmatico bat izan ez arren, ezaugarri modernista argiak dituen nobela dugu *Ez obeditu inori*. Literatura garaikideko nobelagintza nagusiari erreparatzea besterik ez dago kontrastea ikusteko, are euskal literatura garaikidearekiko ere. Zenbait ikerlarien aburuz (Josipovici 2011), literatura modernista zokoratua izan da azken hamarkadotan, eta gaur egun aski nekeza da ezaugarri horiek dituzten literatur lanekin topo egitea. Honenbestez, zentzu horretan ere, eredu literarioari eta formari dagokionez alegia, *Ez obeditu inori* nobela subalternotzat jo daiteke, egungo literatura korrante nagusietatik aski aparte dabilelako. Horrek esplikaturiko luke ez izatea masa kulturaren barnean kokatzen den liburu bat eta, harrera kritiko ona izan zuen arren, ez edukitzea irakurle kopuru bereziki handirik.

2.2. *Su zelaia* eta Lehen Mundu Gerra

Peruarena Lehen Mundu Gerrara mudatu zen bigarren nobelaren istorioa osatzeko. Gerraren piztearen ehungarren urteurrenean argitaratu zen, 2014an, eta nobela koraltzat jo daiteke, ez duelako protagonista jakinik eta ahots ugariaren txandakatzeaz osatua delako. Baionako Infanteriako 49. Erreximenduaren gorabeherak kontaktzen zaizkigu, lau zatitan banatuta. Lehenengoan, mobilizazioaren bezperan Ipar Euskal Herriko zenbait bazterretako giroa irudikatzen zaigu. Bigarrenean, pertsonaia horietako batzuen ibiliak gerraren hastapenetan. Hirugarrenean, egun batzuetarako etxera itzultzeko baimenak eskuratuta, soldaduen itzulera beren herri eta familietara. Laugarrenean, soldaduen itzulera gerrara Verduneko bataila eta gero. Esan bezala, nobela hainbat ahotsz osatua da: atzeraguardian daudenean, lehenengo eta hirugarren zatietan, pertsonaia

bakoitza bere egunerokoan ikusten dugu nobere herrian; gerran daudenean, pertsonaia horiek ikusten ditugu nahasturik trintxera-gerraren izugarrikerian. Kontua da nobelak aurrera egin ahala pertsonaiak hiltzen joaten direla, hariak eta hasieratik bizirik geratzen den bakarra, Filipe Luro, hiltzen den arte, haren heriotzarekin amaitzen baita nobela. Istorioari dagokionez, beraz, ez dago peripezia txundigarririk, gertatuko dena gutxi-asko hasieratik baitaki irakurleak. Gerra kontatzeko moduan eta pertsonaia ugarien bizitzen kontaketa xehean oinarritzen da batik bat nobela.

Ahotsen ugaritasun horretan, gisa askotako pertsonaiak azaltzen dira, baina pisu nabarmenena dutenak herri xehearen parte ditugunak dira. Bizirik geratzen diren azken hirurak aintzat hartuz, Joseph Ameztoik angulak saltzen ditu Rene anaiarekin Baionako merkatuan mobilizatzerara deitzen duten arte; Etien Bonnat boxealaria da, eta Lasarteren kontrako konbatea zapuztua geratu zaio gerra piztearen ondorioz; Filipe Luro ikazkina da, «Elektrika hori agertu denetik» (41) ikazkinak desagertzen ari diren garaietan. Merkatari, kirolari eta langile xeheak ditugu beraz hirurok, eta lehenengo atalean agertzen diren gainontzekoak ere, laborari, erretiratuk, eta oro har, gizarteko klase baxuenetan kokatutakoak ditugu gehienak. Salbuespenak lirateke Elizaren parte diren pertsonaiak (Debidart, Laborde eta Leon Etxeberri erretoreak) eta klase politikoaren parte direnak (Pikasarri Ezpeletako jaun mera, Sarako jaun mera). *Ez obeditu inoriko* pertsonaia bazterrekoekiko begirada markatua ez da akaso hainbestekoa *Su zelaiak*en, baina haatik, garbi dago bigarreanean ere Peruarenak pertsonaia arrunt eta xehekiko begirada lantzen duela batik bat. Bigarren mailako pertsonaia-multzo interesgarri bat dago nobelan zentzu horretan, izen propiorik gabe azaltzen zaizkigun «langile espainolak» alegia. Nobela guztian aurkitzen dira haiei buruzko aipuak, eta guztietan aski modu mespretxuzkoan ikusten dituzte gainontzeko herritarrek. Aipatuak ageri diren lehen aldiak nola irudikatzen diren aski esanguratsua dugu: «Langile espainolak, soldadetan urri, bertze nehork nahi ez dituen mando lan horientzat» (23). Aurrerago «kara hitseko» (27) gisa ezaugarritzen dira eta «afera itsusiekin» lotzen dituzte (37): lapurretak, blasfemiak, greba. Haiekiko xenofobia agerikoa da hainbat herritarrengandik jasotako iritzietan.

Kalixtrok ez du dudarik, Santa Graziko eliz atarian, mezaren ondoko eleketan ari, erretoreak eman baitu gerla handi bat hastera doan berri: «Hemengo obra horiek utzi eta espainol eta gailego horiek guziak behar lirateke igorri Alsaziako obra horietarat, lehen lerroan ezarriak». Pierre Agerrek, hitzetik hortzerat: «Batailoi ederra behar zuketean osatu, mutur hits horiekin, beldurtuko zituzketen alemanak oro». Mari Jeanne Errekalket finitu du eleketa: «Ez dituzte horiek gerlarat igorriko; guk beharko dugu hil, urde horiek segi dezaten gurutzeen uzkailetan eta etxeen ebasten». (38)

Espioitzaz leporaturik atxilotzen dituzte halaber beste bi espainol (122). Espainolok osatzen dute, bada, garaiko Ipar Euskal Herriko klase baxu eta zapalduena, frantziarrek egin nahi ez dituzten lan prekarioenak egiten dituztenak. Haiek dira, orobat, herritar prestuen begietan, arazo, gaixotasun eta makurkeria gehienen iturburu. Zalantzarik gabe, nobelan ageri den klase subalternoa da *par excellence*. Hala ere, beste identitate subalternorik ere ageri da nobelan,

espainiarren bezainbesteko jarraitasunez ez bada ere. Hirugarren zatian, E. doktoari dagokion pasartean, armeniar bat iristen zaio eri Alemaniatic ihesi medikuari. «Iaz armeniarrek hiltzen eta deportatzen hasi zenetik, Enver Pachak eta enparauk ez dute atsedetik izan, ez eta Alemanian ere, Gazte Turkoek hiltzen baitituzte armeniarrek arratoiak hiltzen diren baino gupida ttipiagoz» (130). Anekdotikoa izan daiteke nobelaren osotasunean, baina Peruarenaren identitate subalternoekiko begiradaren beste adibide bat dukegu.

Nolanahi den, nazio-identitatea subalternitatearekin loturik agertzen zaigularik, euskal identitatea lantzen da gehien *Su zelaiak*en. Kontakizun guztian zehar agertzen zaigu nola gerrara zihoazen euskaldun askok —frantsesez aritzeko gai ozta-ozta zirenak (68; 75; 145)— frantsesurik edo (batez ere) hilik amaitzen duten. Lehen Mundu Gerrak frantses identitatea batzeko eta gotortzeko balio izan zuen, barne-eztabaidak albo batera utziz (xuri eta gorrien artekoak), etsaia kanpoaldean identifikatu (Alemanian) eta nazionalismo frantsesa sustatzeko. Eneko Bidegainek aztertu duen bezalaxe (2013; 2014), gerra funtsezkoa izan zen euskal identitatea ahuldu eta Ipar Euskal Herria frantseseko prozesuan, eta Peruarenak ideia hori lantzen du besteak beste fikzioaren bitartez. Bidegainek *Eskualduna* aldizkaria nola jarri zen gerran Frantziaren alde azaldu du (2013), eta Peruarenak aldizkari horretako pasarte bat dakar nobelaren hasieran, non aldizkariak gerrara dei egiten duen abuztuaren 9ko zenbakian.

Eskualduna kazeta gaizoak, astekaria baizik ez baita, gerla hasteko berria galdu zuen joan den astean. Luzien Lavielle, Martin Etxegarai, Jean Salaberri eta Silvain Tucoulet adiskideek eskuratu dute ale berriena agorriaren 7an, partitu aitzin. «Gerla behar badugu, doala gerla. Biba Frantzia!», irakurri die Laviellek adiskideei goraki: «Ote da, ote daiteke deus hunkigarriagorik; deus, bihotz altzagarriagorik, nola baita ikustea, Frantziaren buru batetarik bertzerat, herritar guzien batasuna gperlari buruz? Ez da gutartean gehiago xuri ez gorri, berezikunderik. Oro frantses Frantzian; Eskual-herrian oro eskualdun, elkarren anaia. Donibane-Lohizunetik Atharratzeraino, eta han harat azken herrietako azken mugaraino, dezagun egin guziek bat Frantziarekin. Jainkoa lagun, nehork ez gaitu garaituko».

Aldizkariaren jarrera frantsezale hori nobelan aurrerago berretsiko da, hirugarren zatian atzeraguardian jartzen duenean fokoa, Ernest Fort jaunari buruzko pasartean. *Eskualduna* aldizkaria itzultzen du Baionako Suprefeturarentzat, eta argitaratzea edo zentsuratzea gomendatzen. Aldizkariari dagokionez, ordea, argigarriena Fortek pentsatzen duena da.

Fort jaunak, ordea, neke handirik gabe ihardetsiko dio baiezkorekin Suprefeturaren galdeari, baitaki beste kazetetan argitaratu berriak emanen dituela *Eskualduna*-k komunzki eta, beraz, aurrez zentsura pasatutakoak izanen direla artikulu gutiz gehienak. Eta, bertzenaz, herri ttipietako berri horietan deus ez da arranguratzekorik. Badakienez, gainera, kazeta horren jabeek ez dutela burugabekeriarik eginen, behar ez diren berriak emanez. Lan errazagorik. Mila deabruen euskaldun horiez ez dira sobera fio Suprefeturan, aski ontsa ezagutzen ez dituztelako. Ohoratuko lituzkete bertzela. (128)

Soldadu gehienak euskaldunak dira 49. Erreximenduan, euskaraz egiten dute eta euskal identitatearekin loturiko hainbat elementurekin atxikitzen dira. Pasarte batean, adibidez, Joseph Apeztegi *Xikito Kanboko*a pelotariaren berria dakar Janpierra Berruetek. Xikito hori ere gerran da, eta antza, sarjentu izendatu dute granadak zestarekin botatzeko duen abileziagatik. Dilvain Tucoulet lotinantak haren alde topa egitera deituko ditu kideak, «Biba Xikito! Biba euskaldunak!» (91) oihukaturik. Euskal identitatearen arrasto dira halaber kantu zaharrak. Alemanen abestiei erantzunez kantuan hasten direnean Gabon gauez, *Maitia nun zira*, *Andre Madalen*, *Ikusten duzu goizean* eta *Ardoa edanda* kantatzen dute⁵, ez kantu frantses tradizionalik. Hurrengo urtean ere gisa berean ariko dira alemaniarren bozkariorako (108). Beste zati batzuetan, atzeraguardian zein frontera joatekotan direla, kantu eta bertsoen aipuak agertzen zaizkigu orobat: *Goazen etxerat!* (47), *Arranoak bortuetan* (57), *Maitia nun zira* (141). Azpimarratu beharra dago nobelak aurrera egin ahala eta euskal soldaduak zendu ahala, euskal kantu zaharren presentzia gutxitzen joaten dela ezarian. Egiantan, euskal kantu tradizionalak lehen hiru zatietan aurki ditzakegu; laugarrenean, hots, Verduneko batailatik aurrera kontatzen duenekoan, ez dugu jada erreferentziarik topatzen. Zentzu horretan, bilakabide hori euskal identitatearen galeraren sinbolotzat har liteke; euskaldunak eta euskal identitatea ahuldu ahala, euskal kantuak ere desagertu egiten dira nobelan.

Peruarenak kantu tradizionalak ekartzen ditu euskal memoria finkatzeko testuan, zeren, Renate Lachmann-ek azaltzen duenez, testuartekotasunak sortzen du memoriaren testua (2010: 304). Hala, Peruarenaren nobela adibide bikaina litzateke ikusteko nola literatura ere ezagutza transmititzeko gai den, kasu honetan Ipar Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran jazotako identitate galerarena.

Literature becomes the bearer of actual and the transmitter of historical knowledge and it construes intertextual bonds between literary and non-literary texts. Furthermore, literature recovers and revives knowledge in reincorporating some of its formerly rejected unofficial or arcane traditions. (Lachmann 2010: 306)

Zentzu horretan, Peruarenaren lanak, ikerketa sozio-historikoaren ildoan Bidegainek egin bezala, historia ezkutu eta baztertu bat azaleratuko luke, garrantzi apartekoa izan duena Ipar Euskal Herrian, eta honenbestez, Euskal Herri osoan. Alderdi intertestual horrek garrantzia berezia du nobelan euskal identitatearen irudikatzean. *Eskualduna* aldizkariari eginiko aipuak genituzke hasteko, garaiko giroa irudikatzeko bikainak direnak. Bigarrenik, euskal kantu tradizionalak genituzke, memoria eta identitatea lotzen dituztenak; azkenik, euskalduntasunarekin alde edo moldez zerikusia duten garaiko pasarte eta pertsonaia errealei (*Xikito Kanboko*a, Julio Urkixo (122), Manu Sota (150),

⁵ Nobelako elementu ugari legez, honakoa datu historikoetan ere oinarritua da. Halaxe dio Bidegainek: «Une lasaiagoetan, iluntzean, euskaldunak elkarrekin biltzen zirenean, kantuz ere aritzen ziren, *Maitia nun zira* edo Elizanbururen *Ikusten duzu goizean* bezalako kantuak xaramelatzen zituzten, negarra begian» (2014: 174).

Pierre Landhe (144), Manuel Aznar (170)) egin erreferentziak ere aintzat hartzekoak dira. Horien artean Landherena da azpimarragarriena. Apaiz gaztea Maulen azaltzen zaigu hitzaldi bat emanez Zuberoako eliteen aurrean euskaldunek gerran egindakoei buruz. Lhandek hitzaldian dioenez, euskaldunak beti izan dira «gerlari fierrak», eta hori justifikatzeko errepasso historiko bat egiten du, kartagotarren eta erromatarren garaitik hasita Lehen Mundu Gerra arte. Bere argudiaketak kontra egin nahi die zenbaiten akusazioei, zeinen arabera euskaldunek intsumisiorako joera zuketen. Lhandek kontrakoa dio, euskalduna kuraios, adoretu eta gerlari fina dela. «Eta 1914ko gerlan ere Frantziako aberri handiak egin deiari grina paregabez ihardetsi diote Euskal Herriko aberri ttipiko gazteek. Euskaldunena, garai guzietz, soldadu herria izan da» (145). Arrazoiketaren atzealdean dagoen ideia agerikoa da: euskalduna Frantziari fidel izan zaio beti, eta frantses gisa dituen eginbeharrak betetzen ez du parekorik. Bidegainen arabera, Lhanderen antzekoa izan zen Ipar Euskal Herriko euskal intelektual gehienen jarrera (2014: 171), batez ere *Eskualdunaren* bidez zabaltzen zutela mezua. Datuek, ordea, besterik diote; izan ere, «ia bost [euskal] soldadutik bat desertore edo intsumitu izan zen» (Bidegain 2014: 167). Horiengatik guztiengatik, bistan da Ipar Euskal Herriaren frantsestea ez zela soilik gerran hildako euskaldun mordoaren⁶ bidetik etorri, baizik eta baita asimilazio kultural handi batengatik ere. Asimilazio horretan hizkuntzaren gaia ageri zaigu alde batetik nobelan, eta asimilazio ideologikoa bestetik, Landheren hitzek eta *Eskualduna* aldizkariaren posizioak irudikatuko luketena. Asimilazio horren bidez lortu zen, neurri handi batean, estatu frantziarra eta frantses identitatea hedatu eta indartzea, eta Ipar Euskal Herria Frantziarekiko subalternotasuna sakontzea.

Ipar Euskal Herria ulertzeko giltzetariko bat da Lehen Mundu Gerra ezagutzea eta ulertzea. Dena ez zen 1914an hasi eta ez zen 1918an bukatu, bistan dena, baina Lehen Mundu Gerra izan zen Ipar Euskal Herriko euskaldunak frantses-terko kapitulu nagusia, frantses nazioa eraikitzeko gertakari nagusia. (Bidegain 2014: 205)

Subalternitatearekin loturik legoke nobelako beste ildo bat ere, tradizio sozialistari atxikia kasu honetan. Bakezaletasunaren gaiari dagokiona genuke, eta *Ez obeditu inorirekin* zuzenki lotzen du. Izan ere, garaiko irakurketa sozialistari jarraiki, frontera doazen soldadu guztiak lirateke subalternoa⁷, beren biziak nazio-estatuen gobernariaren estrategien mende zeudelako literalki. Gerra testuinguruko menpekotasun erradikal hori, hainbestekoa dena ezen hasierako pertsonaia euskaldun guztiek amaitzen duten hilik, subalternitatearen adibide argi gisa uler liteke. Trintxerek eta heriotzak berdintzen dituzte soldadu guztiak, jatorri batekoak edo bestekoak izanik ere. Horregatik, azpimarratzekoa da halaber nobelak duen jite bakezalea. Nobelako pasarte ederrenetako batean, *no*

⁶ Kalkuluen arabera, 5.324 eta 5.911 euskaldun artean hil ziren gerran, Ipar Euskal Herriko garaiki populazioaren %3, gutxi gorabehera (Bidegain 2014: 191)

⁷ Eta baita atzeraguardian geratzen diren emakumezkoak ere, nahiz eta nobelan ez duten hainbesteko pisurik.

man's landetik gorpu frantsesak jasotzeko lanean ageri zaigu Mariano Bethe, horretarako bi bandoek akordaturiko su etena baliaturik. Horretan ari dela ezagutuko du beste andari alemaniar bat, eta gerra bukatzerakoan etxera bisita egitera joateko gonbidatuko du paper batean bere helbidea idatzita. Andari alemaniar horrek Bertolt B. gisa sinatzen dio papera, Bertolt Brecht dugu alegia, eta aipu bat ere ezarri dio: «*Keinen mann und keinen groschen*» (Gizonik ez eta sosik ere ez). August Babel eta Karl Liebkecht-engandik jasotako aipu bakezalea da, gerrari boikot egitera (gizon eta sosik ez) deitzen diona. Bethetik ezin izango du Brechtek eskatutakoa bete, papera aurkituko baitio lotinant batek, eta espioi izateagatik akusatuta fusilatuko dute. Arestian aipatutako beste pasarte batean, oraindik hasierako soldadu gehienak bizirik direla, euskal kantu zaharrak kantatzen hasten dira soinua lagun Gabon gauean, hain justu aurretik alemaniarrek ere kantuan ari zirela entzutean. Battitta Garatek dioenez, Ierpeko eremuan armada ezberdinetako soldaduak nahastu omen dira Eguberri eguneko su etena baliaturik.

Belgika aldean, soldadu frantses, belgikar, ingeles eta alemanek egin dute adiskidantza bat Gabon eguneko goizaldean. Armak utzirik, hasi dira afixa batzuen erakusten, *We not fight, you not fight* diotenak batzuetan, *Frohe Weihnachten* diotenak bertzeak. Hasi dira jalgitzen erreketarik, ehortzi dituzte erreken arteko *no man's land* horretan egun luzez usteltzen egon diren hildakoen gorpuak, hasi dira senideen potretak elkarri erakusten, aguardient eta tabako belarrak partekatzen, segitu dute Eguberri egunez gisa berean, jatekoak ere elkarbanatzen dituztela, sartu dira batzuen eta bertzeen erreketan nahasteka, kantatu dituzte gabon kantuak elkarrekin, eta futbol matx bat jokatu dute azken buruan. (96)

Pasarte horiek bando ezberdinetako soldaduak berdintzen dituzte nolabait, eta ondo irudikatzen dute nola zeuden soldaduok —nazio batekoak zein beste-koak— beren gobernarien interesen mende. Nobelaren hasieran, mobilizatuak izango diren soldadu gehienek uste dute aste gutxitako gerra izango dela eta laster izango direla bueltan, baina denborak aurrera egin ahala esperantza horiek zapuzturik geratuko dira. «Abantzu bi urte badira gerla hasi zela, ez da sekula finituko; gezur galanta erran zuten kazetek, gazteei kaskoen berotzeko menturaz» (117). Luroren bilakabideak ere zentzu horretan egiten du aurrera. Gerraren absurduaz gero eta kontzientzia handiagoa hartu doa, eta azkenerako halako nihilismo batean amaituko du, neurri batean Sotero Mujikarena ere gogorarazten duena. «Filipe Luro gero eta herra handiagoa hartzen ari zaio exerzizioei» (177). Gerrako arauak hausten ere ikusten dugu bukaeran, nolabaiteko humanismoz bultzaturik.

Gau batez, baso baten ertzean kolpatua aieneka ari zen soldadu bat ikusi du Lurok. Kartutxoak eta kapota soinetik erantzirik, harat abiatu da, nahiz Etien saiatu den Luro arrastatzen, ofizierren baimenik gabe erreketarik jalgitzea garesti ordain litekeenez. Etienen besoak askaturik partitu da Luro, herrestaka, ahuspez. Hogei metrotan da basoa, erreketarik ez sobera urrun; alemanen lerroa gutienez 500 metrotarat izanen da eremu honetan. Arriskua nondik hel litekeen ezin jakin ordea. Senegaldar bat da kolpatua, izter batean du bala

zauri bat, ez sobera sakona, ez du odol gehiegi galdu. Mokanes batez ahoa estalirik hotsik egin ez dezan, bizkarrean lotu eta gibelerat ekarri du Lurok. Etienek lagundu du errekarat sartzen, non eta agertu baita Capdevielle lotinanta. Sekulako matrikulak erran dizkio lotinantak Lurori, eta lau eguneko giltzapetu dute gela estu batean, etxoletan. (204)

Lehen Mundu Gerrarekin loturiko bakezaletasunaren sinbolo handienetakoa ere nobelaren hasieran azaltzen zaigu aipaturik bi bider. Jean Jaures buruzagi sozialista frantsesa, 1914ko uztailearen 31n erahil zuen nazionalista muturreko batek, hain justu Jauresen bakezaletasun eta Lehen Mundu Gerraren kontrako posizionamendu argiagatik. Nobelaren lehenengo orrialdean jada ageri zaigu aipaturik Auguste Perrin ofizialearen kabutan. Nobelaren lehenengo pasarte horrek aski ongi laburbiltzen du, egiatan, jite bakezale hori. Perrin bakezale amorratua da, gerraren kontrako sutsua, eta desesperaturik da jada ezinezkoa dena ekiditen saiatzeko.

Heldu da gerlan altxatzeko deia, eta joanen dira langile guziak, badaki Auguste Perrinek. Alde bateko eta bertzeko, ezkilen dei horri segika, joanen dira elkar hiltzera, badaki. Menturaz hizlari handi bat ekarriko balute gerlaren aurka gogoen berotzeko eta langileen elkartzeko, Jules Guesde den bezalako hizlari handi bat. Kafetegi honetan berean ez zuen bada hitz egin Guesde handiak, duela... «Duela zenbat, ordea? Hogei urte ez dira iragan ordea!». Eta zertan da Guesde? Gobernamentua babestu du gerlan murgiltzeko, Jean Jaures Parisen hil duten artean bakea aldarrikatzeagatik. (9)

Nobelaren amaiera aldera ere bakezaletasun sozialista horren berri ematen zaigu (193-194). Paueko 18. erreximenduko soldadu batzuen jarreraz mintzo da narratzailea, zeinek uko egin zioten lerrora joateari *Internazionale* kantaturik. Horietako batzuk atxilotu eta hiru hiltzera kondenatu zituztela-eta, *Craonneko kantua* sortu zutela ere azaltzen du. Lehen Mundu Gerrako kantu antimilitarista sonatuena dugu, eta kantu horietan ere ondo ikusten dugu arestian aipatutako memoriaren izaera testuartko hori, kasu honetan memoria sozialistari atxikia.

Bakezaletasunaren gaiarekin hertsiki loturik dago nobelako beste azpigai errepikari bat, desertzioei dagokiena. Bidegainek azaltzen duenez, Frantziako Justizia militarrek heriotza zigorra ezartzen zien desertoreei; datuen arabera, 2500 soldadu kondenatu zituzten motibo horregatik eta horietatik 670⁸ hil zituzten (2014: 91). Hildakoetako bi izan ziren euskaldunak, Pierre Etxeberri izpurrarra eta Louis Mardochée baionarra. Gerra hasten denetik dago presente gaia nobelan, aldika-aldika desertoreak agertzen direlako edo ihes-saiakerak kontatzen direlako. Batzuk atzeraguardian saiatzen dira ihes egiten Espainia aldera eginaz (118-119; 132-134; 155-156), baina baita frontean ere frantsesak alemaniarren lerroetara igaroz (174), edo alderantziz (107; 201). Desertore alemaniarretako bat da kontzientzia bakezale agerikoena duena.

⁸ Horietaz aparte, beste 500 soldadu hil zituzten epaiketarik gabe, *fusillés pour l'exemple*.

Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, larrazkenean segurki, soldadu aleman bat sartu zaie erreketan, bakarra, armarik gabea eta eskuak goiti, herrestan heldu, desertaturik. Battitta Garatek eta Xantiago Fourcadek atxiki dute. Galdekaturik, erran die asea dela gerlaz eta hilik baino nahiago duela preso. Alemanek ere hotza eta gosea dituztela pairatzen. Letra bat atzeman diote, familiari igortzeko galdegin baitu, erraten duena gerla hau sortu dutenek merezi luketela herronkan ezartzea, sail batean lerro-lerro, eta «bunba-bunba» tiratzea kanoiez, «azkeneraino guziak garbitu arte». Gibelerat eraman dute, ustez eta gainerateko presoenganat daramatela baina fusilatuko ote duten segur ez dakitela, desertorea baita azken buruan, alemanetarik bada ere. (107)

Bistan denez, soldaduak berdintzen dira gerran (hotza eta gosea pairatzen) baina baita desertzioan ere. Gatazka, nazionalitate ezberdineko gerlarietatik soldatu xehe eta agintarien artekora biratzen du desertzioak. Goitik, agintarien klasetik ere berdintzen du gainera, horregatik egiten dute zalantza Garatek eta Fourcadek desertore alemaniarraren inguruan, «desertore baita azken buruan». Aurrera egin ahala, eta arestian aipatutako kontzientzia bakezalea hartu ahala, Lurok ez du begi txarrez hartzen desertzioaren aukera. Gerraren luzatzearekin desertzioak handitu direlako, Frantzia geroz eta neurri zorrotzagoak hartzen hasi da horien kontra. Halaxe lortu du Espainiako erregearen adierazpen bat, desertore frantsesak Espainiatik kanporatuko dituela esaten duena. Bizirik geratzen diren bakarrak dira Etien, Manex eta Luro dira, eta hiruren artean eztabaida sortuko da gaiaren inguruan Renaud izeneko gazte batek alemaniarren lerroa desertatu duelako. Luro da ekintzarekiko ulerberarena, «bederen bizia atxikiko duela» (175) gogoraraziz.

Ez obeditu inorin bezalaxe, Su zelaiaken ere hainbat ezaugarri formal identifikatzen ahal dira «memoriaren mimesia» delakoa lortzeko, nahiz eta aurreko nobelarekiko ezberdinak izan. Kasu honetan ez dugu topatzen ez iraganera begiratzen duen narratzailearik, ez eta analepsirik ere (kontakizun lineal-kronologikoa dugu). Narratzaileari dagokionez, heterodiegetikoa da eta fokatze anitzekoa; pasarte bakoitzeko pertsonaietan fokalizatzen da narrazioa aldiro-aldiro. Elementu hori da ziur aski nobelaren berezitasun narratologiko handiena, eta memoria literatura mota batekin zuzenki lotzen duena.

In novels in which the appropriation not of the individual but rather the collective past is represented, a fundamental device that allows for the negotiation of collective memories, identities, and value hierarchies is perspective structure. (...) Texts with a multi-perspectival narration or focalization provide insight into the memories of several narrative instances or figures and in this way they can reveal the functioning and problems of collective memory-creation. An analysis of the perspective structure provides information about the social structure of the fictional world and about the importance or value of specific versions of the past. (Neumann 2010: 338)

Horixe dugu hain justu *Su zelaiaken* kasua. Kontzientzia indibidual baten memoria baino, Ipar Euskal Herriaren Lehen Mundu Gerrako memoria berres-

kurutzen digu, bertako hainbat pertsonaia diferenteen ikuspuntu anitzetatik. Begirada aberastasun horrek memoria konplexuagoa eta dialogikoagoa izatea eragiten du nobela egiantzekoagoa bihurtzeaz gainera. Baliabide estetiko hori, zeina adibidez John Dos Passosek erabili zuen New Yorken aniztasun guztia irudikatu ahal izateko *Manhattan Transfer* nobela sonatuan, lanabes bikaina da iraganaren ikuspuntu bateratu eta erredukzionistak ekiditeko. Hala, nobelan zehar etengabe ikusiko ditugu dialogoan ikuspuntu «xuri» eta «gorriak», frantziar kartsuak eta bakezaleak, eta abar. Ildo honetan bertan, arestian aztertu dugun testuartekotasuna ere aipatu beharra dugu. *Ez obeditu inorin* ere modu apalagoan gertatzen den gisara, testuartekotasunak ikuspuntu aniztasun hori indartzen laguntzen du. «*The social pluralization of competing versions of the past can be further augmented through forms of structural multi-perspectivity, that is, through intertextual and intermedial references to the material dimension of memory culture*» (Neumann 2010: 339)

Denborari dagokionez, *Ez obeditu inoriko* denbora hautsi eta zatikaturik ez badugu ere, bada alderdi aipagarriak. Denbora kontzientziaren inguruko hausnarketa meta-memorstikoak nobela guztian zehar topatzen ahal ditugu, bereziki fronteari dagozkien bigarren eta laugarren ataletan. Atal horiek denbora hil bat irudikatzen dute ia, batailako ekintza errepikariek ez diote segunduei aurrera egiten uzten. Puntu eta aparterik gabe idatziak dira, eta pasarte horiek esaldiaren erdiko ausazko ebaketa batek zatikatzen ditu, «gerraren jarraikortasuna eta deskantsurik eza» (Gurrutxaga 2014) eta etenda geratu den denbora bat iradokitzeke. Zentzu horretan, paradigmaticoak dira gerraren amaieraren inguruko gogoeta errepikatuak, istorioaren hasi-hasieratik presenten direnak. Soldaduek hasieratik uste dute laster izango direla bueltan, baina gerra urtetan luzatzeak soldaduen denboraren nozioa zartatu egiten du goitik behera. Garapen horretan, esanguratsuak dira halaber etxerako baimenen auziak; baimenak lortuta eta aste gutxi batzuetarako etxera itzultzeak (hirugarren zatia), denbora hil hori eten eta bizia berpizten du. Horregatik bururatzen zaio Battitta Garateri gerrara itzultzeke bezperatan, Ezterenzubiko etxean dela aprobeixaturik, muga igaro eta desertatzea. Haatik, amaren erantzun gogorra ikusirik (desohorea litzatekeela familiarentzat, arriskutsua dela) azkenean bere bideari jarraitu eta gerrara itzultzea deliberatzen du, nahiz eta bidean eri jarri eta luze gabe hilko den «su hegian hiltzearen loriarik gabe eta desterrurat ihes egitearen afonturik gabe» (Peruarena 2014: 156). Baimenak ematen hasten diren momentuan, bigarren zatiaren amaiera aldera, Peruarenak baliabide estetiko zehatz bat erabiltzen du, hain justu denbora geldo hori irudikatzeke. Anafora bidez, esaldi bat behin eta berriz errepikatzen du 100. orrialdetik 109. orrialderaino, zeinak fronteko errutina eta errepikapen geldiezina aditzera ematen duen: «Obus bat zapartatu eta, bertze orduz». Laugarren zatiaren amaieran, jada ia denak hilik direla, beste baliabide bat erabiltzen du, Luroren bakarrizketa. Lehen bakarrizketa 190. orrialdean ageri da, bigarren 206 eta 208. orrialdeen artean —Etien hil ondotik—, eta hirugarrena, zatikatua bada ere, 222 eta 230. orrialdeen artean —sukar handi batek jota hiltzorian dela—. Bakarrizketok puntu eta komarik gabe idatziak dira, eta idazlea soilik bi puntuez baliatzen da, puntuazio-arau orotatik aparte. Horretaz gain, hiru bakarrizketetan jarraiak dira denbora aipamenak; denbora tarte lausoetan

mugitzen den arren, Luro saiatu egiten da denbora atxikitzen. Kontzientzia hori bereziki da markatua azkenekoan. «Hilabeteak kasik higitu gabe» (223) egoteaz dihardu; Maitena bere maitalea ikusi gabeko egunak, laurehun eta hogeita hemezortzi (226), zenbatzen ditu; denborari buruzko esaldi borobilak botatzen ditu: «Orai bezala iragana izanen gara» (229).

Elementu formal horiek guztiek arazo handirik gabe kokatzen ahal dute nobela modernismoaren tradizioaren baitan. Bereziki fokalizazio aniztasuna, eta horixe lortzeko behin eta berriz erabiltzen duen zehar estilo librea, bete-betean dugu literatura modernistako ezaugarria. Horrekin batera aipatu behar dira berriki aztertutako Luroren bakarrizketak, kontzientzia jario ariketa agerikoak direnak. Hala, *Ez obeditu inorirekin* aipatu bezala, egungo panorama literarioan tradizio literario aski subalternoa den batean kokatzen zaigu Peruarena, modernismoan alegia. Horrekin paraleloan, hizkuntza hautua ere aski azpimarragarria da. Soldaduek zerabilten euskararen oihartzunak ekarri ditu testua nafar-lapurteraz emanik. Horren ondorioz, kritikari batzuen aburuz bederen, «ohituta ez dagoenari irakurketa astuna suerta dakioke» (Ruiz 2014), baina sinesgarritasunaren ikuspuntutik landa, hautu hori ere Peruarenak duen subalternitatearen kontzientziarekin lotu liteke. Periferikotzat jo daitekeen euskara molde bat baliatuz, euskara estandarra eta hegemonikotik aldentzen da, aberastasun linguistiko-literarioa liburuaren harrera masiboaren gaindi ezarriz (oso jarrera modernista dena, bidenabar).

3. ONDORIOAK

Memoriaren booma delakoa jazo zela hiru hamarkada baino gehiago igaro direla kontuan izanik, ibilbide honetan aintzat hartu diren memoriak eta kanpo geratutakoak aztertzeko aukera eskura geratu da. Literatura interesgarri eta onena hegemonikoa denaren jostura eta zirrikietan mugitzen denez, zenbait autore eta obrei arretaz begiratuta, euskal memoria subalterno eta ezkutuak azalera-tzeko aukera dugu egun. Horrek berebiziko eragina du, gainera, memoria kolektiboaren eta, oro har, gizartearen nozio aberats eta irekiago bat izateko ahaleginean.

By giving voice to those previously silenced fictions of memory, they constitute an imaginative counter-memory, thereby challenging the hegemonic memory culture and questioning the socially established boundary between remembering and forgetting (cf. Singh, Sherrett, and Hogan). Through a multi-perspectival expansion of the remembered world, fictions of memory can design a panorama of co-existing collective memories. (Neumann 2010: 339)

Horixe da Mikel Peruarenaren nobelagintzaren kasua, zeinean identitate eta memoria subalternoak azaltzen zaizkigun lehen planoan, Euskal Herriaren iraganaren eta gizartearen beste ikuspuntu bat eskainiz. *Su zelaiak* dela-eta Saioa Ruiz kritikariak idatzi zuenez, «euskal literaturan ohikoa ez den gerra bati hel-ztea izan daiteke idazlearen ekarpen azpimarragarriena» (2014); ideia hori

luzatuz, antzeko zer bait esan liteke orobat *Ez obeditu inoriz*. Ezohiko memoriak arakatzuz, ezohiko identitateekin egiten du topo Peruarenak, eta haien zimur eta argiak erakusten dizkigu. Bere nobeletako pertsonaia gehienak klase baxukoak ditugu, edo testuinguru azpiratu batean (gerra) ikusten ditugu. Horretaz gain, gehienak, identitate subalterno baten parte (anarkistak, euskaldunak Frantziar Errepublikan) dira.

Hertsiki memoriari dagokionez, euskal memoria abertzale hegemonikoaren kontrastean, euskal memoria sozialista bat azaltzen zaigu zirriborratuta Peruarenaren nobeletan; sozialista zentzu zabalean, hots, langile mugimenduen defentsari dagokion ideologiaren zentzuan. Bietan azaltzen da memoria horren aldarrikapena, eta bietan bakezaletasunaren bidetik. XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasierako bakezaletasuna sozialismoarekin atxikirik ikusten dugu, gerra eliteen auzizat jotzen delako, non herri xehea kanoi-bazka gisa erabiltzen den. Bakanak dira tradizio sozialista internazionalista horren zantzuak topatzen ahal diren euskal nobelak, eta dudarik gabe, Peruarenaren orain arteko bietan bete-betean topatzen dugu aintzaturik memoria sozialista isildu hori. Bestetik, *Su zelaiken*, memoria sozialista horretaz gain, Ipar Euskal Herriko memoria arakatzan du xeheki, zeinean I. Mundu Gerra gertakari mugarriz izan den euskal identitatearen bilakabidean. Euskal memoriaren ikasketetan, gerra aztertu bada, 36ko Gerra aztertu da ia esklusiboki, hots, Hegoaldean eragin handiena izan duena, beste guda eta gatazka batzuk, I. Mundu Gerra esaterako, bazter utziz.

Hala, nabarmenki egin du apustu Peruarenaren nobelagintzak euskal memoria ireki, eta haren izaera aberatsago bat bilatzearen alde. *Ez obeditu inorin* nola *Su zelaiken*, memoria subalterno hori agertzen zaigu balioetsirik, bai istorioaren alderditik eta bai alderdi narratologikotik, eta gure iragan eta identitatea kritikoki aztertzeko bide ematen digu.

BIBLIOGRAFIA

- Arroita, I. (2015) *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik*. Doktore tesi argitaratu gabea. Mari Jose Olaziregik zuzendua. Euskal Herriko Unibertsitatea, Letren Fakultatea.
- Arroita, I. + Otaegi, L. (ed.) (2015) *Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. Kontaera historiko-politikoa*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Asensi, M. (2009) «La subalternidad borrosa». In Spivak, Gayatri Chakravorty. (2009). *¿Pueden hablar los subalternos?». Barcelona, MACBA.*
- Assmann, A. (2010) «Canon and Archive» in Erll, A. eta Nünning, A. (ed.). *A Companion to Cultural Memory Studies*. Berlin/New York, De Gruyter.
- Assmann, J. (2010) «Communicative and Cultural Memory» in Erll, A. eta Nünning, A. (ed.). *A Companion to Cultural Memory Studies*. Berlin/New York, De Gruyter.

- Asurmendi, M. (2009) «Inoren klixetik eta kortxetik aske!», *Irunero*, 2009-11.
- Berasaluze, G. (2009) «Ez obeditu inori», *Beterriko Liburua*, 2009-10.
- Bidegain, E. (2013) *Lehen Mundu Gerra Eskualduna astekarian*. Bilbo, Euskaltzaindia.
- (2014) *Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria*. Donostia, Elkar.
- Carretero, M. (2007) *Documentos de identidad. La construcción de la memoria histórica en un mundo global*. Buenos Aires, Paidós.
- Colmeiro, J. (2011) ¿Una nación de fantasmas?: apariciones, memoria histórica y olvido en la España postfranquista. 452.ªF. *Revista electrónica de teoría de la literatura y literatura comparada*, 4, 17-34.
- Erl, A. + Nünning, A. (2010) «Cultural Memory Studies: An Introduction» in Erl, A. eta Nünning, A. (ed.). *A Companion to Cultural Memory Studies*. Berlin/New York, De Gruyter.
- Gramsci, A. (1981) *Cuadernos de la cárcel. Tomo II*. México, Ediciones Era.
- Guha, R. (1988) «On Some Aspects of the Historiography of Colonial India» in Guha, R. eta Spivak, G. (ed.). *Selected Subaltern Studies*. New York, Oxford University Press.
- Gurrutxaga, A. (2014) «Agur maitasuna, agur bizitza», *Berria*, 2014-12-14.
- Halbwachs, M. (2004) *La memoria colectiva*. Zaragoza, Prensas universitarias de Zaragoza.
- Huysen, A. (1995) *Twilight Memories. Marking Time in a Culture Amnesia*. New York, Routledge.
- Izagirre, K. (1984) *Euzkadi merezi zuten*. Donostia, Hordago.
- (1998) *Nik ere Germinal! egin gura nuen aldarri*. Zarautz, Susa.
- (1999) *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak*. Donostia, Elkar.
- Josipovici, G. (2011) *What Ever Happened to Modernism?*. London: Yale University Press.
- Kortazar, J. (ed.). (2011), *La Guerra Civil en la literatura vasca. Cuadernos de Alzate*, 45. Bilbo: Fundación Pablo Iglesias.
- Lanchmann, R. (2010), «Mnemonic and Intertextual Aspects of Literature» in Erl, A. eta Nünning, A. (ed.). *A Companion to Cultural Memory Studies*. Berlin/New York, De Gruyter.
- Lenin, V. (1917) «Decree on Peace» *Second All-Russia Congress of Soviets of Workers' and Soldiers' Deputies*. <https://www.marxists.org/archive/lenin/works/1917/oct/25-26/26b.htm> orrialdetik berreskuratuta.
- Lodge, D. (1976) «The Language of Modernist Fiction» in Bradbury, Malcolm eta McFarlane, J. (ed.). *Modernism. A Guide to European Literature*. London, Penguin.

- Neumann, B. (2010) «The Literary Representation of Memory» in Erll, A. eta Nünning, A. (ed.). *A Companion to Cultural Memory Studies*. Berlin/New York, De Gruyter.
- Olano, I. (2009) «Germinal», *Gara*, 2009-07-03.
- Olaziregi, M. J. (ed.). (2011) *Literaturas ibéricas y memoria histórica. Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 8. Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Ruiz Gonzalez, S. (2014) «49.aren kronikak», *Argia*, 2014-12-28.
- Sarasola, B. (2009) «Donostiako Sotero», *Berria*, 2009-05-03.
- (2010) «Kind of blue? Etsipen poxi bat?». *Paperezko Zuzen*, 88-99.
- Toledo, A. (ed.). (2007) *Gerra Zibila eta euskal literatura. Euskera*, 54, 2-2. Bilbo, Euskaltzaindia.